



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 30a

18. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa (7. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).
  - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra. (7. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (7. or.).
  - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (7. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (11. or.).
- V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (12. or.).

V.1. 2012ko aurrekontuaren betetze-maila (12. or.).

V.2. 2012ko aurrekontu-emaizta (13. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (13. or.).

V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (14. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontua 2012an (15. or.).

**VI.** Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (16. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).

VI.2. Langileak (17. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (19. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (20. or.).

VI.5. Inbertsioak (21. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (22. or.).

VI.7. Hirigintza (23. or.).

VI.8. Berrikilan SL sozietatea (24. or.).

Berriozarko Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (26. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (27. or.).

Eranskina. Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

**I. SARRERA**

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Berriozarko udalerrriak 2,71 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka, eta 9.449 biztanle dauzka 2012ko urtarrilaren 1ean.

Berriozarko Udalak ez du erakunde autonomorik, baina bai sortu ditu zuzeneko kudeaketarako zenbait organo Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 192. artikulua babestuz; organo horiek zeinek bere atal berezia dute aurrekontuaren baitan, baina izaera juridikorik ez dute. Hala:

- Kultura-koordinatzailea, kultura sustatzeko.
- Kirol Patronatua, kirola sustatzeko.

2012ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Erakundea	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aitortutako esku-bideak (2012)	Langileak, 2012-12-31n
Udala	10.604.313	6.609.949	92

Berrikilan, S.L. izeneko udal enpresa publikoa sortu da 2011ko abenduan, 3.300 euroko kapital sozialarekin. Haren hasierako xedea, 2012tik, Udalaren kirol instalazioak kudeatzea da. 2012an, enpresa publiko horri enkargatu zaiou Udalaren zenbait lokal garbitzea. Enkargu hori 2013tik aurrera gauzatu da.

Ondoren sozietatearen funtsezko datuak adierazten dira:

Erakundea	Diru-sarrerak	Gastuak	Emaitza	2012ko batez besteko langile kopurua
Berrikilan S.L.	905.786	881.674	24.112	18

Udala, gainera, honako hauetako kide da:

Iruñerriko Mankomunitatea: hark ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

Antsoain, Berriozar, Iza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak emateko.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2012an
Iruñerria	168.201
Gizarte zerbitzuak	202.689

Burlatan dagoen Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan (EEZB) ere parte hartzen du.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Sozietate publikoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X		
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua		X		
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika-eskola	X			
Hirigintza	X			
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Kontsumitzailearen Arreta zerb.			X	
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak	X			
Kirol-jardueren kudeaketa			X	
Udal-kiroldegiak				X
Gizarte enplegu babestua		X		
Diru-bilketa exekutiboa			X	

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arautzaileak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2012ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Seigarren eta azken atalean, Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Eranskin bat gehitu da Udalak 2012ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berriozarko Udaleko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Berriozarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- 2012an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino bete den.
- Zein zen Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2011ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

### III. NORAINOKOA

Berriozarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarraren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak.

### IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Berriozarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

#### IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

#### IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 6,11 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 110 –hau da, 6,73 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 12,85 milioikoak dira. Aldaketa horiek inbertsioen eta beren finantzaketaren atalean dute batez ere eragina.

Aitortutako betebeharrak 10,60 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 83ko betetze-maila izan dute. Maila hori justifikatzen da bereziki inbertsioen eta kapital-transferentzien kapituluetan egingako gastu txikiagoengatik.

Aitortutako eskubideak 6,61 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 51ko betetze-maila izan dute; erantsi den diruzaintza-gerakina behin betiko aurreikuspenetatik kanpo uzten bada, ordea, ehuneko 91ko betetze-maila ateratzen da.

Gastuen izaerari begiratu gero, gastu arruntek eta inbertsioek, gastu guztien ehuneko 58 eta ehuneko 42 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 92 dira; diru-sarrera horien ehuneko 49 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuen izaera	Kopurua	Finantza bidea	Kopurua
Langileak	33	Tributu bidezko diru-sarrerak	47
Bestelako gastu arruntak	25	Transferentziak	49
Inbertsioak	33	Ondarearen diru-sarrerak eta beste batzuk	4
Finantza-karga	9	Zorduntzea	0
<b>Guztira</b>	<b>100</b>		<b>100</b>

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2011tik izan duen bila-kaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2011	2012	Aldea (%) 2012/2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	9.861.274	10.604.313	8
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	9.781.853	9.638.139	-1
Likidatutako eskubideak, guztira	7.074.176	6.609.949	-7
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	7.074.176	6.609.949	-7
Gastuen betetze-maila (%)	69	83	
Diru-sarreraren betetze-maila (%)	49	52	
Ordainketak (%)	88	94	
Kobratutakoa (%)	85	91	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	6.328.691	6.109.827	-3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	6.315.468	6.097.744	-3
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	3.453.162	3.528.313	2
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	79.421	966.174	1.117
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.389.935	6.059.973	-5
Zerga bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	3.276.977	3.137.549	-4
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6. kapitulutik 9.era)	684.241	549.976	-20
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	49,62	49,18	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	52	51	
Saldo ez-finantzarioa	-2.707.677	-3.028.191	12
Aurrekontu-emitza doitua	60.889	-109.421	-100
Aurrezki gordina	74.467	-37.771	-151
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	87.544	978.256*	1.017
Aurrezki garbia	-13.077	-1.016.027*	7.670
Zorpetze-maila (%)	1,37	16,14*	
Zorpetze-muga (%)	1,17	-0,62	
Zorpetze-ahalmena (%)	-0,2	-16,77*	
Diruzaintza-gerakina, guztira	8.294.049	4.174.406	-50
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.385.380	806.475	-42
Zor bizia (*)	1.372.662	0	-100
Diru-sarrera arruntan gainerako zor bizia (%)	21,48	0	
Zor bizia biztanleko	153,7	0	-100
Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak	1,37	16,14*	
Zor bizia / Aurrezki gordina	18,43	0	



\* Udalak 2012an aurrez kitatu du 2004an emandako kreditu bat, 1.412.100 eurokoa, zeinetatik 891.853 euro baitzeuden ordaintzeko. Aparteko eragiketa hori kontuan hartuta, honakoak izanen lirateke datu homogeenak:

- Finantza zama: 86.404 euro.
- Aurrezki garbia: -124.175 euro.
- Zorpetze-ahalmena: % -2,05.
- Zorpetze maila: % 1,42.
- Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak: % 1,42.

2012an, Udalak ehuneko 8 gehiago gastatu du aurreko ekitaldian baino, eta diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 7 txikiagoak izan ditu. Diru-sarreretan izandako beherakada hori, ia 0,5 milioikoa, funtsean azaltzen da zeharkako zergen kapituluetan izandako gutxi-zearengatik –ehuneko 62 txikiagoak izan dira–.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko 3ko beherapena izan da; diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 5 egin dute behera. Diru-sarrera arrunten beherakada, funtsean, zeharkako zergen ataletan esandako arrazoiarengatik gertatu da.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioaren balio negatiboa handitu egin da, 2011n 2,71 milioikoa izatetik 2012an 3,03 milioikoa izatera igaro baita; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izan aizaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak.

Aurrekontu-emaizta doitu -109.000 eurokoa izan zen; aurreko urtean, berriz, 61.000 eurokoa izan zen. Gutxitze hori heldu da diru-sarrera arruntek behera egin izatetik.

2012an, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak 2011n baino balio askoz txikiagoak dituzte.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 16,14koa da, eta ehuneko 1,42raino jaisten da kredituaren alde aurretiko amortizazioa kontuan hartzen badugu. Zorpetze-muga ehuneko -0,62koa da. Horrenbestez, Udalak ez du zorpetze berririk hartzeko gaitasun ekonomikorik.

Diruzaintza-gerakina, guztira, 4 milioikoa da, eta ehuneko 49 egin du behera 2011koarekin alderatuz gero. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak ehuneko 42 egin du behera, 2011n 1,38 milioikoa izatetik 2012an 0,81 milioikoa izatera igaro baita.

2012an, guztiz deuseztatu da kreditu-eragiketa. Amortizazio hori baliabide atxikiak dituen diruzaintza-gerakinaren kargura egin da.

Balantzeko maileguen atalaren zenbatekoa 1996an jasotako aurrerakin bati dagokio.

Laburbilduz, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzea, bere gastu arruntak gerarazteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak. Horri dagokionez, Udalaren oroitidazkiak agerian uzten du gastu arrunta finkatutzat eman daitekeela, eta datozen ekitaldietan igo ere egingen dela nabarmen, instalazio berriak abian jarzen joaten diren heinean: haur eskola, kultur etxea, gazteentzako gizarte-etxea. Oroitidazki hau amaitzen da, aurreko ekitaldian bezalaxe, esanez funtsezkoa dela zerbitzuak banaka aztertzea, tasa eta prezio publikoak zerbitzuen kostura hurbiltzen saiatzeko edo, behintzat, bide horretan ahalegina egiteko.

Udalak uste du instalazio berriek ez dutela gastu berririk sortuko, instalazio zaharrago batzuk ordeztara baitatoz. Kredituaren amortizazioa dela eta, ezin izanen du finantza-zamarik jasan datozen ekitaldietan. Hori dela eta, jotzen du behar diren aurrekontu-doikuntzak egiten ari direla datozen ekitaldietan diruzaintza-gerakina ez erabiltzeko defizita koadratze aldera.

Bestalde, hirigintza-kudeaketaren ikuspuntutik, planeamendu indarduna ia amaituta dago eta gaur egun beste plan bat idazten ari da.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

## Aitortutako betebeharrak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	2.440.086	2.493.521	3.119.119	3.662.217	3.609.058	3.656.161	3.525.957
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.829.476	2.031.989	2.174.357	1.924.589	1.936.455	1.960.986	1.801.353
3. Finantza-gastuak	40.301	55.989	975	460	13.220	13.223	12.083
4. Transferentzia arruntak	639.210	713.857	630.140	928.442	716.134	698.322	770.434
6. Inbertsio errealak	714.331	1.458.793	3.663.033	6.708.295	2.769.332	3.421.001	3.484.528
7. Kapital-transferentziak	0	0	135.576	127.438	115.365	32.161	43.784
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	5.100	0
9. Finantza-pasiboak	74.321	74.321	74.321	74.321	74.321	74.321	966.174
<b>Guztira</b>	<b>5.737.725</b>	<b>6.828.469</b>	<b>9.797.522</b>	<b>13.425.762</b>	<b>9.233.885</b>	<b>9.861.274</b>	<b>10.604.313</b>

## Aitortutako eskubideak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	1.759.133	1.687.925	1.806.201	1.769.062	1.791.732	1.845.870	2.011.021
2. Zeharkako zergak	193.365	822.666	1.133.424	1.262.131	419.326	544.407	205.780
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	759.370	968.006	1.143.961	1.218.027	1.592.549	886.700	920.748
4. Transferentzia arruntak	2.479.356	2.709.722	3.027.244	3.100.666	3.132.563	2.826.082	2.700.965
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	48.224	82.182	680.612	407.247	223.300	286.876	221.459
6. Inbertsio errealak besterentzea	2.599	16.978.243	0	0	209.127	0	0
7. Kapital-transferentziak.	12.621	879.326	927.358	1.926.590	1.585.317	684.241	549.976
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>5.254.668</b>	<b>24.128.069</b>	<b>8.718.801</b>	<b>9.683.723</b>	<b>8.953.915</b>	<b>7.074.176</b>	<b>6.609.949</b>

Ikus daitekeen bezala, aitortutako betebeharrak 2009ko ekitaldira arte hazten joan ziren, eta 13 milioi eurokoak izatera iritsi ziren. Hurrengo urteetan, berriz, gastuak gerarazi egin dira, bereziki inbertsioen kapituluaren, eta 2012an 10 milioi eurokoak izatera iritsi dira. Aitortutako eskubideei dagokienez, ikusten da 2007an aparteko diru-sarrera batzuk izan zirela, eta haiei esker Udalak hurrengo urteetan inbertsioak egin ahal izan dituela.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak bi informazio-ohar eman ditu, horietatik bi 2013an, egonkortasunari buruzko araudiaren alderdi zehatz batzuk garatze aldera.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitu-tako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak egindakoa da–. Emaitza hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Gastu guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	9.638.139
Diru-sarrera guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	6.936.374
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-2.701.765
Zergengatik doikuntzak	1.889
Doikuntzak	-99.226
<b>Finantzaketa-beharrak</b>	<b>-2.799.103</b>

Horrenbestez, ikusten da Berriozarko Udalak ez dituela aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen finantzaketa-beharrak direla eta, baina bai betetzen ditu finantza-iraunkortasunari buruzkoak, zeren eta zorra ezarritako muga baino txikiagoa baita. Nabarmendu behar da beharri-zan horiek diruzaintza-gerakinarekin finantzatzen direla.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran garden-tasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oro har, 2011ko txostenean jasotako aholku nagusiak kontuan hartu dira; kudeaketarako oinarritzko lanabesa izan daitezen aurrekontuak ezarritako epeetan onesteari dagokion aholkua, ordea, ez da bete, ezta Udalaren hirigintza-planeamendu berri bat idazteari dagokiona ere.

**V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren azaltzen dira 2012ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

**V.1. 2012ko AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	3.551.850	84.790	3.636.640	3.525.957	97	3.475.192	50.765	1
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.492.600	105.039	1.597.639	1.801.353	113	1.590.864	210.488	12
3. Finantza-gastuak	6.800	0	6.800	12.083	178	12.083	0	0
4. Transferentzia arruntak	852.350	75.111	927.461	770.434	83	726.962	43.473	6
6. Inbertsio errealak	0	5.583.592	5.583.592	3.484.528	62	3.161.919	322.610	9
7. Kapital-transferentziak	0	130.000	130.000	43.784	0	43.784	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	211.400	756.109	967.509	966.174	100	966.174	0	0
<b>Guztira</b>	<b>6.115.000</b>	<b>6.734.641</b>	<b>12.849.641</b>	<b>10.604.313</b>	<b>94</b>	<b>9.976.978</b>	<b>627.335</b>	<b>6</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Egindako	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	1.985.500	0	1.985.500	2.011.021	101	1.788.130	222.891	11
2. Zeharkako zergak	334.100	0	334.100	205.780	62	106.682	99.099	48
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	875.900	0	875.900	920.748	105	846.141	74.607	8
4. Transferentzia arruntak	2.761.500	30.784	2.792.284	2.700.965	97	2.582.488	118.477	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	158.000	0	158.000	221.459	140	215.470	5.989	3
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	0	1.138.500	1.138.500	549.976	48	493.229	56.747	10
8. Finantza-aktiboak	0	5.565.357	5.565.357	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>6.115.000</b>	<b>6.734.641</b>	<b>12.849.641</b>	<b>6.609.949</b>	<b>91</b>	<b>6.032.139</b>	<b>577.810</b>	<b>9</b>

## V.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2011	2012
+ Aitortutako eskubideak	7.074.176	6.609.949
- Aitortutako betebeharrak	9.861.274	10.604.313
<b>= Aurrekontuaren emaitza</b>	<b>-2.787.098</b>	<b>-3.994.634</b>
<b>Doikuntzak</b>		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	500.000	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	500.000
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	0	0
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	3.347.987	3.384.944
<b>= Aurrekontu-emaitza doituia</b>	<b>60.889</b>	<b>-109.421</b>

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011	2012
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.271.969	676.510
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.081.398	577.934
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	789.929	863.410
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	173.252	90.852
(+) Ordainketen itzulketa	81	0
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	700.882	778.901
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	71.810	76.785
(-) Ordaintzeko dauden obligazioak	1.345.984	836.720
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.170.661	627.335
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	30.239	18.794
(+) Diru-sarreraren itzulketak	4.253	456
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	70.831	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	211.659	190.134
(+) Diruzaintzako funts likidoak	8.368.064	4.334.616
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
<b>= Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>8.294.049</b>	<b>4.174.406</b>
<b>Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta</b>	<b>500.000</b>	<b>0</b>
<b>Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta</b>	<b>6.408.669</b>	<b>3.367.931</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b>	<b>1.385.380</b>	<b>806.475</b>

## V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

## Jardunean

Azalpena	2012	2011
A. Ibilgetua	29.393.467	27.522.260
1. Ibilgetu materiala	29.175.983	27.306.575
2. Ibilgetu ez-materiala	210.281	210.281
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0
4. Herri-ondasunak	0	0
5. Ibilgetu finantzarioa	7.204	5.404
C. Zirkulatuzailea	6.330.014	10.968.662
8. Zordunak	753.295	1.343.779
9. Finantza-kontuak	4.362.119	8.440.695
10. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	1.214.599	1.184.188
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>35.723.481</b>	<b>38.490.921</b>

## Pasiboa

Azalpena	2012	2011
A. Funts berekiak	34.298.040	35.520.390
1. Ondarea eta erreserbak	21.544.511	23.316.837
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	0	0
3. Kapitaleko diru-laguntzak	12.753.529	12.203.553
C. Epe luzeko hartzekodunak	480.810	1.372.662
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	480.810	1.372.662
D. Epe laburreko hartzekodunak	944.631	1.597.869
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	836.720	1.491.136
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	107.910	106.733
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>35.723.481</b>	<b>38.490.922</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA 2012an

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Azalpena	2012	2011	Azalpena	2012	2011
3 Hasierako izakinak			3 Bukaerako erosketak		
39 Izakinen balio-galtzeen homidura			39 Izakinen balio-galtzeen homidura		
60 Erosketak			70 Salmentak	593.218	558.229
61 Langileen gastuak	3.540.460	3.673.584	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	502.574	563.914
62 Gastu finantzarioak	10.194	15.111	72 Ekoizpenarekin eta inportazioarekin lotutako tributuak	1.706.179	1.854.208
63 Zergak			73 Errentaren gaineko zerga arruntak	451.488	441.955
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.791.434	1.970.103			
65 Gizarte-prestazioak			75 Ustiapenerako diru-laguntzak		
66 Ustiapenerako diru-laguntzak			76 Transferentzia arruntak	2.700.965	2.826.082
67 Transferentzia arruntak	770.434	698.322	77 Kapitalaren gaineko zergak	59.134	94.114
68 Kapital-transferentziak	43.784	32.161	78 Bestelako diru-sarrerak	46.415	51.432
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	1.805.884	1.636.629	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	700.882	680.678
800 Ekitaldiko emaitza (Saldo hartzekoduna)			Ekitaldiko emaitza (Saldo zorduna)	1.201.336	955.298
Guztira	7.962.191	8.025.911	Guztira	7.962.191	8.025.911

## Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Azalpena	2012	2011	Azalpena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo zorduna)	1.201.336	955.298	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)		
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	2.178		82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)		
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	11.085	228.890	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)			89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	1.214.599	1.184.188
Guztira	1.214.599	1.184.188	Guztira	1.214.599	1.184.188

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2012ko aurrekontua 2012ko otsailaren 15ean onetsi zuen hasiera batez Udalaren Osoko Bilkurak.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2012ko fakturarik, 2013ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak 2012an hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutza-interesik ordaindu hornitzaileei egindako ordainketengatik.

- Ikusi da aurrekontuan zuzkidurarik ez duten gastu batzuk badaudela. Kontu-hartzaileak aurrez ohartarazi du, Gobernu Batzarrak fakturak onetsi baino lehen.

- *Udalaren epe luzeko zorra 1996tik heldu den 0,48 milioiko zenbatekoa duen aurrerakin batek osatuta dago.* 2012ko ekitaldian alde aurretik guztiz kitatu da finantza-entitate batekiko kreditu kontua, zeinak abenduaren 31n 0,89 milioiko ordaintzeko saldoa baitzuen.

- *Udalak aurkeztu duen oroitidazkian zerbitzuen kostuaren azterketa egiten da, eta tasa, prezio publiko eta diru-laguntzen bitartez kostu hori zenbateraino estali den azaltzen da.*

- Jasotako informazioaren arabera, auzi hau azpimarratu behar dugu:

Udaletxe berria eraikitzeko kontratua daukan enpresak 2010eko ekaineko Osoko Bilkuran hartutako erabaki baten aurka jarritako demanda. Guztira 1,22 milioi erreklamatu ditu. Zenbateko horrek osagai hauek biltzen ditu: Udalak obren atzerapenagatik ezarritako zigorraren itzulketa, eta obren amaierako balorazioan, jasandako gastu orokorretan eta ziurtagirien ordainketa dela eta kalkulaturako berandutza-interesetan dauden aldeak.

Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak, 2013ko otsailean, errekurtsua baietsi eta Udalaren erabakia deuseztatu du, eta agindu du jarduketetan atzera egin dadila, obraren neurketa orokorra egin zen unera arte; epaiak ez du ezer erabaki demandaren funts ekonomikoari buruz.

*Gure aholkuak:*

- *Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan **onestea**.*

- *Gastuak egiteko behar diren aurrekontu-aldaketak egitea, behar adina zuzkidurarik ez badute.*



## VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,53 milioi eurokoa da; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 33 eta gastu arrunten ehuneko 58.

2011ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 4 jaitsi da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa
	2011	2012	
Goi-karguak	4.563	1.286	-72
Funtzionarioak	1.497.689	1.426.703	-5
Lan-kontratudun finkoak	470.848	437.968	-7
Aldi baterako lan-kontratua	542.721	573.442	6
Gizarte zamak	1.073.427	1.006.246	-6
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>3.656.161</b>	<b>3.525.957</b>	<b>-4</b>

Udalaren Osokok Bilkurak 2012ko apirilaren 30ean onetsi zuen 2012ko plantilla organikoa. Bertan, 96 lanpostu daude jasota, eta horietatik 49 lanpostu, ehuneko 51, bete gabe daude. Hona xehetasunak:

	<i>Lanpostu-kopurua</i>	<i>Jardunean</i>	<i>Lanpostu hutsak</i>	<i>Betetak lanpostu hutsak</i>
Funtzionarioak	52	37	15	10
Lan-kontratudun finkoak	41	10	31	31
Behin-behineko langileak	3	0	3	2
<b>Guztira</b>	<b>96</b>	<b>47</b>	<b>49</b>	<b>43</b>

2012ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 92 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Kopurua Udalean
Udalbatzako kideak	1
Funtzionarioak	36
Lan-kontratudun finkoak	7
Aldi baterako lan-kontratudunak	48
<b>Guztira</b>	<b>92</b>

Langileen kopurua ehuneko 15 jaitsi da 2011ko ekitaldiko kopuruarekin (107 langile) alderatuta.

Udaleko langile direnak arlo hauetara atxikita daude:

Arloak	Langile-kopurua
Udalbatzako kideak	2
Zerbitzu orokorrak	6
Udaltzaingoa	15
Haur eskola	25
Ikastetxea	2
Laira	0
Ekonomia-gaiak	4
Garbitasuna	5
Hirigintza	3
Lorategiak	5
Obrak	6
Musika eskola	14
Euskara	1
Kultura	2
Gazteria	1
Kirola	1
<b>Guztira</b>	<b>92</b>

Azpitarratu behar dugu Udaltzaingoko, haur eskolako eta musika eskolako langileak direla Udaleko langile guztien ehuneko 59.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakita-koak dira; ordainsari horiek 2012an izoztu dira, eta egindako atxikipenak zuzenak dira.

Udalaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta administrazio-kontratadunen 2012ko lan-baldintzei buruzko erabakian –2011ko abuztuan onetsi zen– osagarri hauek ezarri ziren:

- Konpentsazioko osagarria, irents daitekeena, 68/2009 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehenagotik gradua eta familia-laguntza jaso dituzten administrazio-kontratadunentzat.
- Ehuneko 2ko berariazko osagarria udaltzain laguntzaileentzat.
- Ehuneko 2ko berariazko osagarria haur eskolari atxikitako langileentzat.

Nafarroako Gobernuak hala eskaturik, 2012ko otsailean Osoko Bilkurak deuseztatu egin zituen konpentsazioko osagarria eta Haur Eskolako, “negoiazio kolektiboan soilik bidera daitekeen gaia” izateagatik. Udaltzain laguntzaileen osagarriari eutsi zaio, lan-baldintzei buruzko aurreko erabakiaren testuan zegoen akats bat zuzendu delako haren bitartez.

2012an egindako kontratazio berriei dagokienez, nabarmendu beharra dago idazkari berri bat sartu dela eta kirol eremua zaintzeko zenbait lanpostu eta Laira zentroko langileenak (zerbitzu hori 2012an azkendu da) amortizatu direla.

Halaber, 2012-2015 legegintzaldirako enplegu eskaintza publiko bat badago, 8 lanposturena: zerbitzu anitzetako hiru langile, bi administrari-laguntzaile, arkitekto bat, ordenantza bat eta giza baliabideen arduradun bat.

Udalak ez zien bere langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko soldata, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuz, baina abenduan ordaindu zuen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legean aurreikusitako konpentsazioko osagarria. Foru lege horrek, bere artikulua bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosteko ahalmenaren galera dela eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAOn argitaratu eta biharamunean. Horrek zalantza batzuk planteatu ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliagarritasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru Legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko.

Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu zen, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judicial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

Egiaztatu dira zinegotzietan 2012an zehar sortutako dieten kontzeptuan eginiko ordainketak, osoko bilkura, gobernu-batzar eta batzordeetara joateagatik. 2011-2015 legegintzaldirako, honako araubidea ezarri zen:

- Alkatea: ez du Udalaren kargurako arduraldi eskusiborik izanen, foru parlamentaria baita eta Parlamentutik jasotzen baititu ordainsariak.
- Asteko 25 orduko arduraldia daukaten zinegotziak: urtean, 18.200 euro.
- Asteko 12 orduko arduraldia daukan zinegotzia: urtean, 8.120 euro.
- Arduraldi eskusiboa duen zinegotzia: urtean, 27.344 euro.
- Gainerako zinegotzietan osoko bilkura, gobernu batzar eta informazio batzordearen saio bakoitzean 100 euro kobratzen dute bertaratzeagatik.

Kontzeptu hori dela eta, hiru organo kolegiatu mota horietako bakoitzeko gehienez 12 bertaratze kobratu ahalko dira. Kopuru hori urte amaieran erregularizatzen da.

Hilero konturako ordainketa bat egiten da organo bakoitzeko saioetara joateagatik, eta urte bukaeran kontzeptu hori erregularizatzen da. 2012an zehar, kontzeptu hori dela eta, 59.078 euro ordaindu ziren; 2013an, berriz, 900 euro itzultzeko eskatu da.

### VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuak 1,8 milioi euro egin dute 2012ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 17 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 29 egiten dute. 2011. urtearen aldean, ehuneko 8 jaitsi dira.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Azalpena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa
Mendialdea ikastetxe publikoaren garbiketa	Laguntza	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe; eskaintza onena	115.200	5	104.000
Lan zerbitzua Gizartekoa eta hezkuntzakoa	Zerbitzuak	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe; eskaintza onena	21.180	3	21.180

Espeditente horiei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren bitartez egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu dela.

## VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 0,81 milioi egin dute, eta 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 7,7 dira.

2011rekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 11 egin du gora, funtsean transferentzia arruntek gora egitearen ondorioz. Hori aldatu egin da aurreko urteekin alderatuta; izan ere, 2009tik gastu horrek urtero behera egin du. Beherakada handiena 2011n gertatu da, kapital-transferentziak gutxitzearen ondorioz, zehazki, eraikinak zaharberritzeko diru-laguntzak jaitsi direlako –2010ean, berriz nabarmen handiak izan ziren–.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2011/2012
	2011	2012	
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	14.259	14.259	0
Mankomunitateei	342.895	370.889	8
Familiei	56.472	41.898	-26
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	13.464	69.541	416
Beste transferentzia batzuk	271.230	273.847	1
4. Transferentzia arruntak	698.321	770.434	10
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	32.161	43.784	36
7. Kapital-transferentziak	32.161	43.784	36

Honakoak dira 2012an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Zenbatekoa
Eskualdeko garraioa	168.200
Gizarte zerbitzuak	202.689
Berriozar kirol elkartearekiko hitzarmena	50.661
Mendialdea Kirol Elkartea	42.000
Berriozar kirol elkartearekiko hitzarmena	41.300
Auzokidea Laguntzeko Elkartea	30.000

Udalak badu diru-laguntzak emateko ordenantza orokorra, 2012ko martxoan behin betiko onetsia. Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak ordenantza horretatik kanpo daude, berariazko ordenantza batean arautu baitira.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

## VI.5. INBERTSIOAK

2012. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (5,58 milioi) ehuneko 62 bete da, eta 3,48 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 33.

Kapituluaren betetze-maila apala izan da, batez ere, haur eskolako obretarako eta kultur etxeko ekitaldi aretorako jarritako diru-kopuruaren ondorioz; izan ere, aurreikusita zegoen baino erritmo motelagoan bete da obra horien aurrekontua. Bestalde, adierazi beharra dago ezen, gaurko abagune ekonomikoa ikusita, aurrekontu-inbertsio batzuk badaude zeinak amaieran ez baitira gauzatu edo, bestela, atzeratu baitira (haur parkeak, azpiegitura plana, ikastetxe publikoaren galdara eta abar).

2011rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 2 –hau da, 0,06 milioi– egin dute gora.

Honakoak izan dira 2012an egindako inbertsio nagusiak (BEZik gabeko zenbatekoak):

Inbertsioa	Zenbatekoa
Euskal Herria plazako urbanizazioa	348.905
Haur eskola	1.203.925
Kultur etxeko ekitaldi aretoa	855.951
Padel pistak egitea	163.300
Belar artifiziala berritzea	163.397

2012an esleitutako ondoko espedienteak aztertu dira (zenbatekoak BEZik gabe):

Azalpena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazio-aren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa	2012an bete
Padel pista	Obra	Negoziatua, Europan publikitaterik egin gabe; eskaintzarik onena	170.000	1	161.000	151.500
Kultur etxea eta musika eskola zabaltzea	Obra	Irekia, Europan publikitaterik egin gabe /eskainitako preziorik onena	847.458	10	609.915	654.369*
Haur eskolaren eraikuntza	Obra	Irekia, Europan publikitaterik egin gabe /eskainitako preziorik onena	1.952.321	20	1.308.055	946.814

\*Instalazioa egin bitartean, zenbait egokitzapen egin dira, kontradikzio-prezioen onespenerari buruzko txosten teknikoetan eta Osoko Bilkurak haiek onetsi izatean oinarrituak. Obraren erremate-lanak 86.735 euroko gehikuntza ekarri dute.

Aipatzekoa da 2012an amaitu direla Kultur Etxea eta Haur Eskola handitzeko lanak.

Eginiko azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

## VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubideak 6,61 milioioak izan dira; ehuneko 92 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie eta ehuneko 8, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak -3,14 milioi euro- eta transferentzia arruntak -2,7 milioi euro- nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 51koa izan da. Maila apala izan da, funtsean, 5,57 milioiko diruzaintza-gerakina behin betiko aurreikuspenetan sartuta dagoelako; hura kontuan hartu gabe, berriz, gauzatze-maila ehuneko 91koa da.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2012ko hirigintza-eragiketen ondorioz.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 7 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarrerak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
1. Zuzeneko zergak	1.845.870	2.011.021	9
2. Zeharkako zergak	544.407	205.780	-62
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	886.699	920.748	4
4 Transferentzia arruntak	2.826.082	2.700.965	-4
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	286.876	221.459	-23
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>6.389.935</b>	<b>6.059.973</b>	<b>-5</b>
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	-
7 Kapital-transferentziak	684.241	549.976	-20
8. Finantza-aktiboak	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	-
<b>Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)</b>	<b>684.241</b>	<b>549.976</b>	<b>-20</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>7.074.176</b>	<b>6.609.949</b>	<b>-7</b>

Nabarmendu behar dugu zeharkako zergek behera egin dutela.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
Lurraldeko kontribuzioa	1.154.935	1.259.250	9
Ibilgailuak	441.955	451.488	2
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	94.114	59.134	-37
JEZa	154.866	241.148	56
EIOZa	544.407	205.780	-62
<b>Guztira</b>	<b>2.390.277</b>	<b>2.216.800</b>	<b>-7</b>

Antzematen diren aldaketa nagusiak dira lursailen balioaren igoerari dagokiona, etxebizitzaren salerosketaren moteltze nabarmenaren ondorioz balio hori ehuneko 37 jaitsi baita 2012ko ekitaldian, eta EIOZari dagokiona, zeinak 2012ko ekitaldian ehuneko 62 egin baitu behera (2011n handiagoa izan zen, Artiberri II. sektoreko hirigintza-garapen berria zela medio).

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraldeko kontribuzioa	0,214	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga		
Gaurkotzearen koefizientea	3,1etik 3,3ra	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	8,176	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	5	2 - 5

Tasa horiek izoztu egin dira 2011koen aldean, hiri-lurraren kontribuzioarena eta lurren balioaren goerarena izan ezik, horiek ehuneko 3 eta ehuneko 2,2 egin baitute gora, hurrenez hurren.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean eginiko azterketaren bitartez, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

## VI.7. HIRIGINTZA

Berriozarko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat eta administrari ofizial bat.

Gainera, Udalak badu kanpoko aholkularitza juridikoa hirigintzaren arloan, abokatu batek ematen diona. Horrek 9.655 euroko gastua ekarri du 2012an.

1991ko maiatzaren 8an onetsitako arau subsidiarioak dira Berriozarko planeamendu-tresna. 20 urte geroago, ia erabat beteta daude arau horietan aurreikusitako hirigintza-helburuak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitarte, indarrean diren planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko. Foru lege horretako estipulazioak betetze aldera, Udalak 2005eko uztailan esleitu zituen Udal Plan Orokorra idazteko laguntza teknikoko lanak.

Udal Plan Orokorrerako egin zen lehenbiziko dokumentua, Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua (LOEE), 2006ko otsailean onetsi zen. Plan berria idazteko lanak 2007an esleitu ziren, eta bukatu gabe daude txosten hau egiteko garaian.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa ego-kietarako. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da ezen planak Aitzoingo kuartelaren segurtasun-eremu batzuetan eragina zuenez, hura garatzeko beharrezkoa dela Defentsa Ministerioarekin ados jartzea.

Udalak badu Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistro espezifikoko bat, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak agindu bezala; haren osaera zehatz-mehatz azaltzen da Udalaren oroitidazkian. Halaber, Udalak hirigintza-hitzarmenen erregistroa kudeatzen du.

*Udal Plan berria idazteko prozesua behingoz bukatzea gomendatzen dugu.*

## VI.8 BERRIKILAN SL SOZIETATEA

2011n sortu zen, baina 2012an hasi da jarduten. 2012ko urtarrilean enkargatu zitzaion Berriozarko Udalaren kirol zerbitzuen prestazioa kudeatzea; aurrez, zeharkako kudeaketaren bidez ematen ziren zerbitzu horiek.

Horretarako, Berriozarko kirol eremuko instalazioak hamar urterako errentan eman zitzaizkion. 2012an ordaindu beharreko kopurua 11.675 euro da, gehi dagokion BEZa.

Gero, 2013an, udal lokalen garbiketa enkargatu zitzaion.

Sozietateak 30.752 euroko etekina lortu du, zergak ordaindu aurretik. Hartatik 24.112 euroko etekina geratzen da zergak ordaindu ondoren.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da Udalak kalkulatu duela kirol eremuaren amortizazioaren kopurua 200.000 eurokoa izanen dela.

Oroitidazkian kiroldegiaren estalduraren ehunekoari buruzko kalkulua egiten da, ulertuta diru-sarrerek ehuneko zenbat egiten duten kostu osoan; izan ere, ehuneko 5,37 egiten dute.

Kirol instalazioen kudeaketari dagokionez, ulertzen dugu ezen, araubide juridikoari erreparatuta, nahasgarri gerta daitekeela Udalak zerbitzuen zeharkako kudeaketaren modalitatea – errentamendua– erabiltzea, udal sozietate publiko bati eginiko enkargu batekin, azken horrek zerbitzuen zuzeneko kudeaketa eskatzen baitu.

Horri dagokionez, ikuspuntu juridiko batetik, zerbitzua enpresa publikoaren bidez kudeatu nahi bada, egokiagoa izanen litzateke instalazioak hari laga eta haien kudeaketa enkargatzea, Udalak kudeaketa horren emaitza bere gain hartuta.

Hona sozietatearen balantzea eta emaitzen kontua abenduaren 31n.

## Galera eta irabazien kontua 2012ko abenduaren 31n

Azalpena	2012ko ekitaldia
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia	905.786
4 Hornikuntzak	-81.508
6 Langile-gastuak	-533.151
7 Bestelako ustiatze-gastuak	-259.855
12 Beste emaitza batzuk	-520
A Ustiaketaren emaitzak	30.752
C Zerga aurreko emaitza	30.752
17 Etekinen gaineko zergak	-6.640
<b>Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>24.112</b>



## 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

## Jardunean

Azalpena	2012ko ekitaldia
<b>Aktibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>0</b>
Zordunak	47.266
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	79.756
<b>Aktibo korrontea, guztira</b>	<b>127.022</b>
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>127.022</b>

## Pasiboa

Azalpena	2012ko ekitaldia
Kapital soziala	3.300
Galerak eta irabaziak, 2012-12-31n	24.112
<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>27.412</b>
Epe luzera eratutako fidantzak	170
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>170</b>
Zerbitzuak erostearen edo ematearen ondoriozko zorrak	34.390
Ogasun publikoa hartzekodun, BEZa eta PFEZa direla eta	35.733
Ogasun publikoa hartzekodun, sozietateen gaineko zerga dela eta	5.761
Gizarte segurantzaren erakundeak	11.584
Epe laburreko hornikuntza	3.918
Ordainketen aldizkako ordainketak	8.054
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>99.440</b>
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>127.022</b>

Txosten hau eman da indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

**BERRIOZARKO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**1. alegazioa:

Udalak emandako zerbitzuei dagokienez –txosteneko 4. orrialdean ageri dira–, honakoak falta dira:

Kultura.

Euskara.

Gazteria.

Ingurumena.

Genero berdintasuna.

Guztiak ere zuzenean ematen ditu Udalak. Halaber, zerbitzu-kontratuaren modalitatearen bidez, beste bi zerbitzu hauek ematen ditu:

Aholkularitza juridikoa, berdintasunaren arloan. Aholkularitza psikologikoa, berdintasunaren arloan.

2. alegazioa:

Txosteneko 29. orrialdean, Berrikilan SL sozietateari buruz hitz egiterakoan, Kontuen Ganberaren txostenak honakoa zehazten du: “2012ko urtarrilean enkargatu zitzaion Berriozarko Udalaren kirol zerbitzuen prestazioa kudeatzea; aurrez, zeharkako kudeaketaren bidez ematen ziren zerbitzu horiek”.

Zehaztu beharko litzateke ezen Udalaren enkargua udal kiroldegia lotutako zerbitzuen kudeaketari dagokiola; izan ere, zerbitzu horiek zeharkako kudeaketaren bidez ematen ziren. Horri gehitu zitzaion futbol zelaiko instalazioekin lotutako zerbitzuen kudeaketa; izan ere, zerbitzu horiek lehenago Udalaren zuzeneko kudeaketaren bidez ematen ziren. Bi zerbitzu horiek ez dira Berriozarko Udalak ematen dituen kirol zerbitzu guztiak.

Kontuen Ganberak adierazitakoari buruzko gogoeta:

Ondoren dioguna ez da alegazio bat, baizik eta aurrekontu-gastua gerarazteari buruzko araudiak duen eraginari buruzko gogoeta bat; izan ere, jokaera hori ez da beti irizpide positibo bat izaten udal ekonomian.

Horri dagokionez, txosteneko 13. orrialdean honako baieztapena ageri da:

“Horrenbestez, ikusten da Berriozarko Udalak ez dituela aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen finantzaketa-beharrak direla eta, baina bai betetzen ditu finantza-iraunkortasunari buruzkoak, zeren eta zorra ezarritako muga baino txikiagoa baita. Nabarmendu behar da beharizan horiek diruzaintza-gerakinarekin finantzatzen direla”.

Planteamendu horretatik eratorzen da ezen entitate publiko baten aurrekontu-egonkortasuna balio-esteko irizpidea mugatzen dela kasuko ekitaldiko emaitzan defizitik ez izatera, aurreko urteetatik metatutako gerakina kontuan izan gabe. Gure iritziz, aurreko ekitaldietan metatutako gerakina erabiltzea baliabiderik onenetako bat da urte batean diru-sarrerarik ez izateari aurre egiteko, hartara gizarte zerbitzuei eskariaren maila berean eutsi ahal izateko; izan ere, eskari horrek gora egiten du progresiboki pairatzen dugun krisi-egoera larriagotzen den heinean.

Irudi lezake planteatzen duten balorazioak gonbit egiten duela ekitaldi bakoitzeko superabita automatikoki gastatzeko, zeren ea aurrezkoa, etorkizunean erabiltzen bada, arreta-dei bat ekar baitezake, aurrekontu-egonkortasunaren betekizunak ez betetzeagatik. Zertarako aurreztu, aurreztutako kapitalaren erabilera etorkizunean negatiboki baloratuko bada?

Berriozarko Udalaren kasu zehatzean, gertatzen da ekonomikoki entitate saneatua dela, zeina bere gerakinaz baliatzen ari baita finantzatzeko kanpoko finantzaketa arruntik jasotzen ez duten gizarte izaerako zerbitzuak edo, bestela, finantzaketa jasota ere, hura oso eskasa edo gero eta txikiagoa duten zerbitzuak.

Ongi dakigu zuen oharpena heldu dela aurrekontu-egonkortasunaren arloan egin diren legealdaketetatik –izan ere, 2012an egin dira horiek–, baina hain zuzen ere onetsi direneko eta indarra hartu

dureneko data dela eta, ezinezko gertatu da haiek kontuan hartu izatea ekitaldi horretako aurrekontua egiteko.

Berriozarko alkatea: Xabi Lasa Gorraiz

#### **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

Berriozarko Udaleko alkateak udal horri buruzko behin-behineko txostenari buruz egin dituen alegazioak txosten horretan adierazitakoen azalpen edo zabalpen bat dira eta, horrenbestez, ez dute bera aldatzen.

Horregatik, erabaki dugu haiek txostenari gehitzea eta txostena behin betikotzat jotzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 9an  
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

